

EGAk C1 2022

Dispositif de Certification de langue basque Épreuves de niveau C1

Qu'est-ce que le Dispositif de Certification de Langue Basque ?

Le DCLB sert à vérifier et à valider le niveau de capacité linguistique en Euskara. Il est mis en place sur la base du Cadre Européen Commun de Référence (CECR) qui a prévu 6 niveaux : A1, A2, B1, B2, C1 et C2. Le niveau C1 est celui de l'utilisateur expérimenté et autonome d'une langue, juste avant celui de la maîtrise.

Comme les années précédentes, deux sessions d'épreuves de niveau C1 seront organisées en 2022, si les conditions liées à la crise de la Covid-19 en vigueur à chaque moment le permettent.

Le Dispositif* s'appuie sur un partenariat entre l'Office Public de la Langue Basque, l'Université de Pau et des Pays de l'Adour et l'Université de Bordeaux Montaigne.

Qu'est-ce que l'examen de niveau C1 ?

Le niveau C1 est celui de l'utilisateur expérimenté et autonome d'une langue, précédant celui de la maîtrise excellente de la langue.

L'examen de niveau C1 mesure la compréhension à l'écrit et à l'oral, l'expression écrite et orale, ainsi que l'interaction entre deux locuteurs.

Quelles compétences certifie-t-il ?

L'utilisateur autonome est capable de comprendre une grande gamme de textes longs et exigeants, ainsi que de saisir des significations implicites. Il est capable de s'exprimer spontanément et couramment, sans effort pour chercher ses mots. Il peut utiliser la langue de façon efficace et souple dans sa vie sociale, professionnelle, scolaire ou universitaire.

Il peut s'exprimer sur des sujets complexes de façon claire et bien structurée. Il doit maîtriser les mécanismes d'organisation, d'articulation et de cohésion de l'expression écrite et orale.

À qui s'adressent ces épreuves ?

À toute personne sachant bien parler et écrire la langue basque, soit acquise comme langue maternelle avec alphabétisation par la suite, soit comme langue apprise à l'école, soit enfin comme langue apprise par un adulte en centre de formation.

* Ce Dispositif ne comprend pas d'enseignement en langue basque.

EGAk C1 2022

Non? Noiz? Nola? Covid-19 osasun krisia dela-eta, honako egutegia urtean zehar moldatzen ahalko da, antolaketa beharrek hala eskatzen badute.

Lehen deialdia

Izen emateak:
2022ko martxoaren 1etik 31ra
www.mintzaira.fr
webgunean

Izen emate saria: 24 €
Ordainketak postaz egiteko epea:
apirilaren 22a

Azterketarien behin betiko
zerrenda argitaratzea
www.mintzaira.fr
webgunean maiatzaren 13an

Azterketaren lehen zatia:
Maiatzaren 21 ean
Baionako Fakultatean
Platanoen bidea, 8
8, All. des Platanes
64100 Bayonne - Baiona

Idatzia gainditu dutenen zerrenda:
www.mintzaira.fr
webgunean ekainaren 15ean

Ahozko azterketa:
Ekainaren 18an
Baionako Fakultatean
Platanoen bidea, 8
8, All. des Platanes
64100 Bayonne - Baiona

Bigarren deialdia

Izen emateak:
2022ko agorriaren 22tik
irailaren 11ra
www.mintzaira.fr
webgunean

Izen emate saria: 24 €
Ordainketak postaz egiteko epea:
irailaren 16a

Azterketarien behin betiko
zerrenda argitaratzea
www.mintzaira.fr
webgunean irailaren 20an

Azterketaren lehen zatia:
Irailaren 24an
Baionako Fakultatean
Platanoen bidea, 8
8, All. des Platanes
64100 Bayonne - Baiona

Idatzia gainditu dutenen zerrenda:
www.mintzaira.fr
webgunean urriaren 12an

Ahozko azterketa:
Urriaren 15ean
Baionako Fakultatean
Platanoen bidea, 8
8, All. des Platanes
64100 Bayonne - Baiona

Aurkezteko baldintzak:
2022/12/31n berantenez 17 urte beteak izatea
Frantziar Estatuan, sortu, bizi, lanean edo ikasten aritzea

Beharrezkoak direnak:
Nortasun agiri bat
Idazteko tresnak ekartzea
Tenorez heltzea!

EGAk C1 2022

Euskara Gaitasun Egiaztapen Dispositiboa C1 mailako probak

Zer da Euskara Gaitasun Egiaztapen Dispositiboa (EGED)?

Euskarazko hizkuntza gaitasuna egiaztatze egin den dispositiboa da EGED, Europako Erreferentzia Marko Bateratuan (EEMB) oinarritua.

Aitzineko urteetan bezala, C1 mailako Euskara Gaitasun Agiriaren azterketak antolatuko dira 2022an, bi azterketa deialdi irekiren bitartez, **Covid-19aren osasun krisiarengatik, une oro indarrean diren arauzko neurriek ahalmentzen badute.**

Dispositiboa,* Euskararen Erakunde Publikoak, Paue eta Aturriko herrialdeetako unibertsitatearekin eta Bordeaux Montaigne Unibertsitatearekin eraman partaidetza-lanean oinarritua da.

Zer da C1 mailako azterketa?

EEMBak 6 maila ditu: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. C1 maila, hizkuntza baten erabiltzaile gaituarena da, hain zuzen adituen mailaren aitzinekoa.

C1eko azterketak neurtzen ditu ahozko adierazpena eta entzunaren ulermena, irakurriaren eta idatziaren ulermena, baita bi pertsonaren arteko ahozko elkarreragina ere.

Zein gaitasun egiaztatzen du C1 mailako agiriak?


C1 maila erdiesten duena, gai izan behar da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta orobat, testu horietan esanahi inplizituak antzemateko. Badaki jariatasunez eta bat-batean gauzak adierazten, erranmolde egokia aurkitzeko ahalegin handirik egiten ari denik sumatzen ez zaiolarik.

Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa, artikulazio eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz idatzian eta ahozkoan.

Nori zuzendua zaio C1 mailako azterketa?

Euskara ongi dakien orori: izan euskara etxean eta eskolan ikasi duena edo alfabetatua izateko bere baitarik landua duena, edota heldua izanki, euskaltegia ikasia duena.

* Dispositiboak ez du euskara irakaskuntzarik eskaintzen.



C1 mailako azterketa-ereduak azterketa idatzia eta ahozko azterketa ditu. Biak gainditzea beharrezkoa da C1 maila lortzeko.

EGUNAK / PROBA KOPURUA

C1eko azterketak, bi fasetan eta hiru probatan iragaten dira, **Covid-19aren osasunkrisiarengatik, une oro indarrean diren neurriek baimentzen badute.**

- Lehen egunean proba idatzia eta entzunaren ulermena.
- Bigarren egunean ahozko proba.

AZTERKETAREN LEHEN EGUNA

I. Entzunaren ulermena: 30 minutu inguru

II. Azterketa idatzia: 3 ornez Bost ariketa ditu

1. Idazlana
2. Gutuna
3. Esaldiak berridaztea
4. Sinonimoak
5. Irakurriaren ulermena

AZTERKETAREN BIGARREN EGUNA

Ahozko adierazpen proba

Bi ariketa ditu

1. Gai baten ahozko azalpena
2. Bat-bateko elkarrizketa saioa

Azterketariak 20 bat minutu izanen dute probaren lehen ariketa prestatzeko. Aztertzaileen aitzinean, binaka eginen dute proba. Probaren iraupena 20 bat minutukoa da, orotara.

Nolako azterketak? Zer neurtzen da?

IDATZIA

1. Idazlana

Bi gai izanen dira aukeran eta azterketariak horietako bat garatu beharko du. Kandidatuak 250 hitz inguru idatzi beharko ditu.

Ariketa hau gainditzea baitezpadakoa da azterketa idatzia eskuratzeko.

30 punturen gain neurtua den idazlanaren ariketa hau gainditzeko, 15 puntu erdietsi behar dira gutienez.

2. Gutuna

Bi gai izanen dira aukeran eta azterketariak horietako bat gutun gisa idatzi beharko du. Kandidatuak 150 hitz inguru idatzi beharko ditu.

10 punturen gain neurtua den ariketa.

Idazlana eta gutunaren kalifikazioarako ondoko alderdi hauek hartuko dira kontuan: **zuzentasuna, egokitasuna, diskurtsoaren koherentzia/kohesioa eta aberastasuna.**

3. Esaldiak berridaztea

Emandako hamar esaldiren moldaketa egin beharko du azterketariak :

a) Bost esalditan, esaldi baliokideak sortu beharko ditu beste egitura batzuk erabiliz, betiere esaldi bakarra osatuz.

Berridazketa bideratzeko eta gauzatzeko, elementu batzuk eskainiko zaizkio erreferentzia gisa.

b) Bost esalditan akatsak zuzendu beharko ditu.

Moldaketa oso eta zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa baitu, 5 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 2,5 puntu erdietsi behar dira gutienez*.

4. Sinonimoak

Testu laburretan, azpimarratuak diren hamar hitzen baliokide egokiak eman beharko ditu kandidatuak.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa baitu, 5 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 2,5 puntu erdietsi behar dira gutienez*.

5. Irakurriaren ulermena

Testu batzuk eskainiko zaizkio azterketariari, horiei buruzko galderei erantzun diezaien.

10 punturen gain neurtua den ariketa. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

Euskaltzaindiaren arauak dira zuzentasunaren oinarrian.

* Sinonimoen eta esaldiak berridazteko ariketaren kalifikazioak bilduko dira eta bietatik batean 2,5 puntu lortu ez bada ere, bien artean gutienez 6 puntu lortuz, gaindituzat emanen dira. Ariketa hau gainditzea baitezpadakoa da azterketa idatzia eskuratzeko.

AHOZKOA

1. Entzunaren ulermena

Azterketa idatziaren egunean egingen da ariketa hau.

Grabaketa zatiak entzuten ditu azterketariak. Zati bakoitzari buruz galderak egingen zaizkio eta erantzun zuzena hautatu beharko du, aukera anitzeko moldean emanen zaizkion erantzunen artean.

5 punturen gain neurtua den ariketa. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.

2. Ahozko adierazpena: bi aztertzailez osatu epaimahaiak, azterketariak binaka entzuten ditu

a) Gai baten ahozko azalpena.

Azterketari bakoitzari gai desberdin bat emanen zaio idatziz, hogen minutuz prestatzeko. Kandidatu bakoitzak bere aldia, egokitu zaien informazioaren bost bat minutuko azalpena eman beharko du, honako elementuak kontuan hartuz:

- gaiaren aurkezpen txukuna egitea,
- mamiaren puntu funtsezkoenak deskribatzea,
- iritzi edo gaiaren hedadura posiblea proposatzea kandidatuak bere baitatik. Kandidatu bakoitzak frogatu beharko du ere besteak egin duen aurkezpena ulertu duela, aztertzaileak egingen dion galdera bati erantzunez.

b) Bat-bateko elkarrizketa saioa.

Aztertzaileek gai bat eskainiko diete azterketariari. Azterketari bakoitzak gai horri buruzko ikusmolde bat garatu beharko du. Azterketariak elkarrizketan ariko dira, emana zaien ikuspuntuaren alde eginaz. Elkarrizketa edo eztabaida bideratzeko edota orekatzeko, aztertzaileek parte har dezakete. Azterketariak, bien artean, guti gora behera zappi minutuz arituko dira.

Proba hau gainditzea baitezpadakoa da ahozko azterketa eskuratzeko. Ondotik, lehen eguneko "Ahozko ulermena"-rekin batez-besteak egingen da.

C1 mailako euskara gaitasun agiriaren azterketa: Proben puntuazioa

Azterketa - probak	Ariketa	Gehienez lor daitezkeen puntuak	Gainditzeko gutxienez lortu behar diren puntuak
Proba idatziak	1. Idazlana	30	15
	2. Gutuna	10	
	3. a) Esaldiak berridatzi (5 esaldi)	2,5	2,5 bakoitzean edo 6 bien artean
	b) Esaldiak zuzendu (5 esaldi)	2,5	
	4. Sinonimoak (10 baliokide)	5	
5. Irakurriaren ulermena	10		
	Idatzia orotara	60	30/31
Ahozko probak			
Entzumena	Entzunaren ulermen ariketa	5	
	Ahozko ariketak: azaipena + elkarrizketa	20	10
Ahozko adierazpena	Ahozkoa orotara: (Entzunaren ulermena + ahozko adierazpena) x2	50	25
Azterketa orotara		110	55/56

Azken emaitza Bikain/Ongi/Aski ongi/Gainditua edo Ez gainditua izanen da.

Deialdi bateko idatziko kalifikazioak, urte bereko bigarren deialdirako soilik mantenduko dira.